

_elkarrizketa:

ELI PINEDO > "Gure helburua liga eta kopa irabaztea izan behar da" 12. or

"Emakume kirolaria izatea abantaila baino pribilegioa da"



Aiara

Udalak 746.000 euro itzuli beharko ditu hamabost egunetan 3. or.

Kultura

Gaztainak utzitako historia bilduko du Orozkoko Gaztain egunak 10. or.

Iritziak:


JULEN ARZUAGA 2. or.
ITZIAR LARRAZABAL 6. or.
JONATAN MORENO 7. or.
GAIZKA BARAÑANO 13. or.
MATEO PAGAZAURTUNDUA
INMA ROIZ 10. or.
IRATI MARAÑON 16. or.

aiaraldea



Aiaraldeko hamabostekaria
2013 /// Urriak 17 ///
OSTEGUNA
2. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Bost urtetan %160 hazi da lanik gabe dauden herritarren kopurua Aiaraldean



ERREPORTAJEA: Frackinga Gasa ustiatzeko haustura hidraulikoaren teknikak mehatxupearan ditu eskualdeko lur eta urak 8-9 or.

KOMUNITATEETAKO ERABERRITZE LANETAN ADITUAK

- DISEINUA ETA PROIEKTU TEKNIKOA
- UDAL-BAIMENEN KUDEAKETA
- ARAUDIAK BETE AHAL IZATEKO AHOZKULARITZA
- OBRAREN GAUZATZEA
- ADOSTUTAKO EPEAN LANA BUKATZEKO KONPROMISOA



ondasunegi

ESPEZIALISTAK GARELAKO DUGU PREZIORIK ONENA EGIAZTATU EZAZU

 **94 672 08 32**

Karmen 25, 01400 LAUDIO/Araba
info@ondasunegi.com

_iritzia



Julen
Arzuaga
ABOKATUA

_Balkoitik

Esan nezake

Esakaini zidatenetik zutabe honetan parte hartzea kezka bat darabilt buruan. Zer esan neza-ke estreinaldi honetan?

Azal nezake zer sentitu nuen irailaren 30 hartan, Herriraren kontrako operazioaz jakin nuen. Plazaratu nitzake operatiboa salatzeko mota guztietako argudioak: arrazoi juridikoen falta, ezegokitasun politikoa, pertsona horiek egiten duten lanaren beharra...

Ausartu ahalko nintzateke salatzeraz, lege berberak Rodriguez Galindo jeneralari askatasuna ematen diola eta beste batzuei askatasuna ukatzen diela, "lege-inbutua" bailitzan. Hipotesiak egin ahalko nituzke, Parot doktrinaz Europako Giza Eskubideen Tribunalak esango duenaren inguruan, eta esandakoaz Espainiar estatuak ulertuko duenaren inguruan. Hausnar nezake presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurri doilor horiek nola gainditu. Konta nezake zein jarrera itxiak topatu ditudan Legebiltzarrean, herri honetan Bake osoa eta Bizikidetzatza demokratikoa ezartzeko lanean. Aldarrika neza-ke proiektu guztiak berdintasun egoera batetik gauzatzeko eskubidea. Tesi egin nezake, ea politikak hori guztia laguntzeko eta bideratzeko balio duen edo, aitzitik, oztopatzeko eta arazoak usteltzeko balio duen.

Hori eta gehiago egin neza-ke. Baina lehenengo zutabe honetan, ariketa sinpleago baina bihotzekoago bat egitera noa: Espainian eta Frantzian sakanatuak dauden Aiaraldeko presoei besarkada xume bat bidaliko diet.



Dong Chulien
Dendaria

Norbaitekin doazen txakurrak lotuta joan behar dira. Hala ez badaoz umeei... zerbait pasa dakieke. Txakurrentzat hobe da solte joatea, aske izatea. Pertsonentzat, aldiz, lotuta eramatea da onena.

Animaliek edo pertsonak beldurra izan dezakete, eta erasokor bihurtu.



Sara Urkijo Larrinaga
Tabernaria

Nigatik lotuta joan daitezela. Kaletik bizikletaz goazenean gurutatu egiten zaizkigu, eta erortzeko arriskua dugu.

Araudia batzuetan ondo iruditzen zait, besteetan ez. Mendian edo leku handietan solte joatearen alde nago, oinez dagoen jende kopuruaren arabera.

?

_GALDERA

Txakurrak kaletik lotuta eraman behar direla arautu dute hainbat herritan. Ados zaude?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita

BIDEA WEB -GUNEAN



Anton Soroluze
Udaltzaina

Araudiak txakur arriskutsuak direnean bozala eta 2 metroko korrea eduki behar dela dio. Guk bi isun mota jartzen ditugu. Bozala eta txakurra lotuta ez eramatearren bat eta kaka ez jasotzearren bestea.

100 eurotik 6.000 arteko isunak egon daitezke.



Roberto de Barrio
Langilea

Kokoteraino nago udaltzaintzat. Oso gaizki iruditzen zait arautzea. Txakurrek aske joan behar dute. Nirea, adibidez, oso txikia da eta solte oso ondo doa, ez dio inori arazorik sortzen.

Isunak jartzearen kontra nago. Txakurrentzat ez dago espazio publikorik, nondik ateratzea nahi dute bestela?



Nerea Iglesias Lili
Ikaslea

Nire ustetan txakurrak lotuta joan behar dira, gizarteko pertsona guztiek ez dituztelako gogoko. Kontuan hartu behar da ea nola-ko txakurra den, ezaugarrien arabera jokabide ezberdinak dituztelako. Hala ere, arriskutsua den edo ez jasotako heziketaren arabera-koa da.

TWITTERen

#40gramo

Lanetik atera eta @aiaraldea-ren lehen #40gramo historiko taberna topatzea #ederra @urtzai

Azkarrago iritsi zen Ulises Itakara baina tira, azkenik hemen dira ene #40gramo-ak. Zorionak ta kuraia on @aiaraldea! ? @maikoxki

Zorionak @aiaraldea! Pixkanaka pixkanaka eskualdea euskalduntzen... Horregatik, gaurko eta biharko onena #40gramo euskara izango dira Aiaran @larteaga

#eginklik

Mila esker :) "@aiaraldea: Udako Postal Lehiaketaren irabazleak aukeratu ditu epaimahaiak http://bit.ly/16t7XSR @erreharria

Ongi. Hartu dut sari bat @aiaraldea Komunikazio Leihok antolatutako Udako Postal Lehiaketan http://www.aiaraldea.com/albis-teak/udako-postal-lehiaketa-ren-irabazleak-aukeratu-ditu @rruben4

> jarrai gaitzazu twitter-en
> izan berriemaile
@aiaraldea aipatuta

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Audio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Ailara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152



_gutunak

LOMCEren izena eta izana

Elena Dominguez. STEE-EILASeko kidea.

Hezkuntzan gutxien espero genuen momentua heldu da. Bai, hurrengo ikasturteetan hezkuntza sistema arautuko duen legea mundura jaio da. Eta, momentuz jaioberria bada ere, las-ter bere lehenengo urratsak emateko prest egongo dela aurreratu digu Wert ministroak, bere aita zoriontsuak. Lege berri hau LOMCE izenarekin bataiatu dute, "kalitatea" eta "hobekuntza" hitzak hezkuntza-koarekin txertatuz. Baina, kasu honetan izena eta izana ez dira gauza bera eta, guztiok kalitatezko hezkuntzaren defendatzaileak eta hezkuntza sistema hobetzeko aldekoak izan arren, lege honen barrukoak, mamiak kontrako noranzkoa jarraitzeko asmoa dauka. Kalitatezko hezkuntza ez da lortzen lurralde ezberdinen ezaugarriak ezeztatuz, hezkuntza komunitatearen iritziak baztertuz, ikasleak emaitzen eta klasearen arabera diskriminatuz, curriculumak elizaren zerbitzuan jarritz, ikastetxeen arteko lehiaketa bultzatuz... LOMCEaren sorrera hezkuntzaren kontra-ko baloreetan oinarritu da. Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa eraikitze-ko pauso berriak emateko beharrean gaude. Egin dezagun!

Helduak eta pentsionistak

Sabino Aramedí. Aiarako Pentsionistak Martxan-eko kidea.



Euskal Herriko lau herrialdeetan gauden pentsionisten plataformakoak gara. Elkartu eta gure eskubideen alde borrokatze-ko beharra ikusi dugu, orain arte nahiz eta bizitza laborean zehar asko lan egin ekarpen asko egiteko gaitasuna dugula uste dugu eta. Gure beharrak publiko egin nahi ditugu, jubilatuen eta pertsona- nagusien irudia berreskuratu. Finean, zuzenean eragiten diguten eraba- kietan parte hartzea nahi dugu. Hemen lan egin eta kotizatu badugu gu gara gure baliabideak zertarako erabili behar diren erabaki behar dugu- nak: pentsioak, osasuna, hezkuntza... Ez dugu 1000 euro baino gutxia- goko pentsiorik nahi. Bestetik, emakume eta gizonen eskubideen ar- tean berdintasuna eskatzen dugu. Eta, babes sozialeko sisteman zein segurtasuna dohaik izan beharko litzatekeela. Zergen sistema pro- gresiboa aldarrikatzen dugu, beharrezko denean pentsioa aurrekon- tu publikoetatik bermatzea barne. Horregatik, Euskal Herriko eskubide sozialekin karta osatzen ari gara. Eskakizunak lortu artean mobilizatzen jarraituko dugu, botiken ordaintzarekin bezala.



_herriz herri

Aiara

Okondo



Aiarako kiroldegia-aren proiektuaren planoak Argazkia: Aiarako udala

Kiroldegia egiteko jasotako dirua itzuli behar du udalak

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Aiarako udalak 744.000 euro itzuli behar dizkio Arabako Foru Aldundiari, bukatu gabeko kiroldegiko obrak direla-eta. Izan ere, legeak, diru-laguntza eskatu eta obrak

burutzen ⁽¹⁾ ez badira, bueltatzera behartzen du. Azkeneko emaitzan, zorretan zeuden 624.822,29 euroi 129.729 euroko interesa gehitu dio Aldundiak. Udalari eskaera

agiri bidez helarazi zaio, erantzuteko 15 eguneko epea eskainiz. Pasa den astean jaso zuten eskaera. Hortaz, egun hauetan aztertu eta bideratu beharko dute kiroldegia-aren proiektuak utzitako zorrari nola egin aurre.

Proiektuaren prozesua

Aiara kiroldegia eraikitzeke proiektua 2006an jarri zen martxan, 1.125.000 euroko aurrekontuarekin. Handik eta bost urtera, ordea, ia hirukoitza izatera pasatu zen; zehazki 3.000.000 eurokoa. Handitzeke erabakia osoko bilkuran hartu zen. Hiru egun geroago helduzen Josu Artetxe, Bildurenize-nean, alkatetzara. Artetxeren arabera, proiektu horiek garatzeko garaia ez dela iritzita, 2011an bertan hasi ziren espedienteaz aztertzen, emaitza negatiboekin: irregulartasunak, eraikuntza arazoak... Hor-ma bat erortzeko arriskuan zela-eta, behera botatzea erabaki zuten.

Diruaren gehiengoa kiroldegia- paisaiaren lerroan zuen presentzia leuntzeko egindako zuloan xahutu ⁽²⁾ zuten. Gainera, Aldundiak obra burutzeko beharrezkoak ziren 1.200.000 euroak ordaintzeko gaitasun eza erakutsi zuen. Hori dela eta, Udal gobernutik eraikuntza etete-ko ⁽³⁾ erabakia hartu zen.

Udalaren egoera ekonomikoa dela eta, Aldundiak zehaztutako

epean dirua ordaindu behar izateak itoko zuela deritzo ⁽⁴⁾ alkateak. Horregatik, prozedura atzeratzea dute helburu. Izan ere, bide legalak erabilita kiroldegia-aren eraikuntzaz arduratu zen enpresari eta udal arkitektoari ezarritako salaketaren sententzia 2014an jasotzea espero dute.

Auzia, epaiaren zain

Salaketan 1.200.000 euro ingurueskatu dituzte, obra arazoek sortutako kalte ordainengatik. Zehazki, egitura kalkuluak oker egin izana egozten ⁽⁵⁾ zaie enpresa eta udal arkitektoari, horma erortzeko zorian egotera ino. Gauzak horrela, eta beste herri batzuetako adibideei helduta, Artetxek Aiarak polikiroldegirik behar ez duela uste du; ez behintzat neurri horretakoa.

Haren arabera, beste kiroldegi batzuk erori egin dira mantentze gastuak direla-eta. Gainera Amurriokoa gertu izanda, 3000 biztanlerentzat neurri horretako gastuak egitea zalantzakorra dela deritzo. "Gurea faraoi obra bat zen, helburu soziala ez genuen ikusten inondik inora."

Hiztegia: burutzen ⁽¹⁾, egiten / xahutu ⁽²⁾, gastatu / eteteke ⁽³⁾, gelditze-ko / deritzo ⁽⁴⁾, uste du / egozten ⁽⁵⁾. leporatzen.

Gizarte etxe bat egingo dute auzolanean San Roman auzoan

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren

Okondoko San Roman auzoan ekitaldiak antolatzeke gizarte etxea egiten ari dira. Antzinako ikastolan kokatuko da.

Egitasmoa auzolanean garatuko dute. Horretarako, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso dute, materiala haiek ordainduko dute. Lana, ordea, herritarrek egingo dute.

Egun, 200 lagun bizi dira San Romanen. "Eraikina eliza parean dago, inguru politean. Zaharra da, baina polita", esan du Sergio Tato alkateak.

Helburua, edozein pertsona edo eragilek ekintzak antolatzeke beste guñe bat izatea da. Dagoeneko obrak hasi dira eta abenduan amaitzea espero dute: "Epea duela bi hilabete hasi zen, abuztua eta irailean lanak antolatzen ibili ginen: ordutegiak, materiala...".

Orain arte solairuetako leihoak kendu eta konpondu dituzte. Gutxi gora behera 10 lagun ari dira txandaka elkartzen.

Jubilatuaren etxean konponketak

Sergio Tato alkateak azaldu duenez jubilatuen etxean ere konponketak egingo dituzte.

Egurrezko solairua baldosen-gatik ordezkatzeko dute, leihoak aldatu eta berogailu sistema berri-ru. Proiektua iaz aurkeztu zioten foru aldundiari, obra txiki-ru planaren baitan. Azaroaren 30erako aurreikusi dute lanen amaiera.

Bestalde, Okondoko Malkuartu portuko errepedearen egoera hobetzeko lanak ere aurkiabiatuko dituela Arabako Foru Aldundiak ar-rreratu du Sergio Tatok.

Ekitaldiz lepo datoz "Euskararen egunak"

ERREDAKZIOA | Eunate Molinuevo

Euskara gure hizkuntza da eta euskaraz ere bizi daitekeela gogorazteko asmoarekin, Euskararen Egunak antolatu dituzte as- tebururako Aiara. Hala, zenbait ekintza gauzatuko dira Luiaon- don, Arespalditzan eta Llantenen 24 euskara elkarte eta udalaren eskutik. Ostiralean, hilak 18, Ber-

balagun programaren aurkezpe- na egingo da Luiaondoko gizarte etxean 18:30ean. Udalerrian jada martxan dagoen iniziatiba horrek familientzako ekintzak ere biltzen ditu Gurasolagun ekimenaren bar-ruan. Helburuetako bat parte har- tzea sustatzea da, guztion artean zein ekintza egin nahi den erabaki-

tzeko. Ez da, ordea, aurkezpen hu- tsa izango. 19:30ean *Molto vivace* boskoteak kontzertu didaktikoa es- kainiko baitu marrazki bizidun eta filmeetan agertzen diren doinu os- petsuenekin.

Ilgandean triki-poteoa egongo da 12:30ean Arespalditzan. Gero 14:30ean herri-bazkaria egin-

go dute Llantenen. Bazkalostean, 16:30etatik aurrera, hausnarketa eta elkarrizketarako foroak antola- tu dute. Izan ere, 2014-2017 epeal- dirako Euskara Plana gauzatu nahi dute udalerrian eta garrantzitsua da hizkuntzaren erronkak identi- fikatu eta zein jarraipen emango zaien erabakitzea.

LAUDIO 1983: Ur eta elkartasun oldea DOKUMENTALA

DVD-a SALGAI

ZUHAITZA LIBURUDENDAN
(Nerbioi 2, Audio)

PREZIOA: 3 euro

ARZA

HARATEGIAK-URDAITEGIAK

PIO XII 9 Tlfnoa: 94 672 05 88
UGARTE 8 Tlfnoa: 94 672 03 15

LAUDIO

_herriz herri

Laudio



Laudioko gaztelekua Argazkia: Txabi Alvarado

Udalbatza bigarren gaztelekua egitearen alde agertu da

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Bigarren gazteleku bat irekitzea onartu da udal osoko bilkuran, EAJ, PSE eta PPren aldeko bozekin. Hala ere, emandako pausua ez da erabakigarria izango.

“Hona ez da inor etorri ezer galdetzeraz, guk albisteak komunikabideen bidez jaso dugu”. Goretti Eskaltzak

ezustean jaso zuen bigarren gaztelekuaren notizia. Bai berak eta baita berarekin batera Ugarteko gaztelekuan lanean dabiltzan beste hertzailak ere. EAJk eta PSEk mozio bateratu bat aurkeztu zuten azken udalbatzan, zeinetan zera eskatzen zen: udala prestatzen ari den gaz-

te planaren barruan gazteleku berri bat irekitzearen proiektua sartzeara. Mozioa ez zen aho batez onartu: PPk alde bozkatu zuen, baina OMNIA abstenitu egin zen, eta Bildu aurka azaldu zen. “Erdigunetik hurbilago” egongo den lokal baten beharra dago, mozioaren arabera.

Baina hori “zentzugabekeria” bat da, Eskaltzaren hitzetan; eta bere lankide Ilazki Ussia bat dator baieztapen horrekin: “erdigunean bat egonda jendea ez da Ugartekora etorriko”.

Adin tarte zabalagoa -12 urtetik 35 urtera- hartuko duen gazteleku baten beharra dagoela ere argudiatzen dute EAJ eta PSEk. Baina horrek ere ez du zentzurik, langileen arabera, “oso ezberdinak” direlako 12 urteko baten interesak eta 35 urteko batenak. Horretaz gain, Aritz Lili lankideak gaineratu du 17 urtetik gorakoentzako badela Laudion lokal publiko bat: gaztetxea.

Txaro Sarasua PSEko zinegotziak Ugartera “integratu ez diren pertsona batzuk” iritsi direla esan izana ere salatu dute gaztelekuko langileek. “Xenofobia indartzeko komentario bat da”, Liliren iritziz. “Guk gazteen arteko integrazioa landu dugu, eta gaztelekuan elkarbizitza oso ona izaten dute kultura, arraza zein sexu ezberdinetako pertsonak”. Maider Basterra EAJko zinegotziak gaztelekuaren kalitatea jaitsi dela esan izana ere kritikatu dute langileek. Ordutegia murriztu den arren, eskaintzaren kalitatea handitu egin dela ziurtatu dute, eta Basterraren komentarioak “mindu” egin dutela. Bigarren gaztelekuaren ideia aurrera ateratzeara “etxea teilatutik hastea” da, Liliren ustez. Izan ere, beharrak identifikatu behar dira lehenbizi, eta gero beharrian horiek asetzeko zein azpiegitura behar diren ikusi, ez alderantziz.

Merkataritza euskalduntzeko programa bat jarri dute abian

ERREDAKZIOA |

Jaione Pagazaurtundua

Urte hasieran hasiko den ekimen honi esker udalak zerbitzu eta laguntza batzuk eskainiko dizkie planean parte hartzea erabaki dutenei. Eskura jartzen zaizkien onura horien trukean, planean ari direnek euskararekiko konpromiso batzuk hartuko dituzte. Parte hartzaileek hartuko dituzten konpromisoak hiru mailetakoak izango dira. Udalerrian dauden hiztun tipologia guztiek lekua izan dezaten kolore batez identifikatuko dira eranskailu baten bitartez.

Konpromisoaren helburua lortzeko laguntza Euskara Arloak eskainiko du: itzulpen gintza, errotilazio berrirako diru-laguntzak eta abar.

Hiru konpromiso maila

Oinarrizko konpromisoan “Irudia eta komunikazioa euskaraz” izatea bultzatuko da. Era honetan establezimenduan egingo diren errotilazio eta komunikazio orokor berri guztietan euskararen presentzia bermatuko da. Bezeroekiko ahozko harremanetan ere euskara txertatzen hasiko dira. Konpromiso ertainean “Irudia, komunikazioa eta zerbitzua euskaraz” egingo dute. Aurreko konpromiso mailan jasotakoaz gain, ahalegin berezi bat egingo da zerbitzua euskaraz emateko. Goreneko mailan, aldiz, “Irudia, komunikazioa, zerbitzua eta lana euskaraz” garatuko dute.

Azaldu dutenez, ahalegin berezi bat egingo da langileen arteko eta langileen eta enpresaren arteko idatzizko eta ahozko komunikazioan euskararen presentzia bermatuta egon dadin. Hartutako konpromisoak betetzen ari ote diren aldizka egiaztatuko da. Udalak bere aldetik honako konpromisoak hartzen ditu ekimen laguntzeko: merkataritza eta ostalarientzat egokitutako “Dendaketa” euskaraz ikastaroak, itzulpenetarako eta hizkuntza aholkularitzarako doako zerbitzua, errotilazioa euskaratzeko diru-laguntzak, hiztegi baten argitalpena eta planean izena emandutenean bezeroen artean doan banatzeko parte hartzen ari diren lekuak identifikatzea. Euskara plan honetara sartzeara doakoa da eta edozein unetan gauzatu daiteke. Argibide gehiagorako Laudio Udaleko Euskara Arloa jotzea eskatu dute.

_iruditan



Urriaren 11tik 13ra hegaztien erakusketak egon zen Laudion. Bertan, hainbat espezie ezagutu eta erosteko aukera egon zen. Ostiralean, ikastetxeetako haur eta gazteak bertaratu ziren.

Asteburuan, aldiz, herritarrak.

Argazki bilduma: Bego Gillen



Laudion Bizi Gara kulturen taldeak mobilizazioa deitu du urriak 18rako

ERREDAKZIOA | Irati Mendiguren

Laudion Bizi Gara ekimenak mobilizazioa deitu du ostiralerako. Kontzentrazioaren bidez Lampedusara iritsi nahi zuten ehunka somaliar, eritrear eta beste afrikar batzuri egindako sarraskia salatu nahi dute.

Izan ere, ehundaka haur eta heldu hil dira itsasoan itota azken asteetan zehar. Hitzordua 19:30ean izango da, Lamuza plazan. Laudion Bizi Gara ekimenak herrian bizi diren kultura ezberdinetako jendea batzen du. Besteak beste, euskaldunak, espainiarrak eta saharauiarrak daude.

Iaz sortu zuten taldea, eta kulturartekotasuna lantzeko herriezberdinetako ohiturak, elikagaiak, dantzak... ezagutzeko jaia antolatu dute orain arte, besteak beste.



_herriz herri

Orozko



Orozkoko udalbatza Argazkia: Aiaraldea.com

Erosleen errentaren arabera Zubiaurreko 9 pisu salgai

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Zubiaur Eraikuntzak Elkarateak egun salgai dituen 9 etxebizitzaren salneurria merkatzeko proposamena egitea erabaki du ADIEk. Halairagarri du Orozkoko alkateak Elkaratearen azken Ezohiko Batzarren ostean eskainitako adierazpenetan.

Zubiaur Eraikuntzak Elkarateak erabilitako orubeen⁽¹⁾ saleroske-

tan Orozkoko udalarekin sortutako zorra eta Udalak Elkarateari maileguan⁽²⁾ emandako diruen kikapena burutzea espero du alkateak proposamen honekin. Izan ere, udalarekin bi zor dituzte. Batetik 1.600.000 euro eta bestetik 150.000 euro. "Bata prestamo gisa utzitakoa da, eta bestea pisuetako solarra saldu/erostekoa tra-

mitea. Udalak lurra saldu zionetik dago zorra", zehaztu du.

Etxebizitza sozialak eskura jartzeko herritarren artean inkesta egingo dute: "Nahi duguna pisuak merkatzeko da, baina horretarako jendekaz bat diru irabazten duen jakin nahi dugu, errenta egoki bilatzeko. Diru gutxiago badu, jendeak gutxiago ordain dezan". Horretarako, BBKkoekin harremanak hasi dituzte, "eta ez digute oztoporik jarri, teknikoez ere...". Guztira, 9 pisu jarriko dituzte salgai.

Udalbatza polemika

Zubiaur Eraikuntzak sozietate publikoa da. Orain arte, etxebizitzak egin ditu. Duela gutxi, ordea, ADIEko bi kidek Administrazio Kontseiluan parte hartzeari uko egin zioten.

Udala tartean izaki⁽³⁾, Bilduk eta EAJko osatutako oposizioak alkatea eta alkateordea kontseilari izendatu zituen, baina ADIEko partaideek izendapena errefusatu⁽⁴⁾ zuten. Kontseiluaren osaketaren harira, Josu San Pedrok zera adierazi du: "Kontseiluak funtzionatzen jarrai dezake, 3-5 pertsona diote estatutuek. Bi joan dira, orduan 3 daude. Funtzionala da eta ez gara sartuko".

Udalbatzaren aurretik egindako Kontseiluan, ADIEko ordezkariak galderak luzatu zituzten. Bilduko eta EAJko kideek, alde egitea erabaki zuten.

Hiztegia: Orube⁽¹⁾, lur saila / Mailegua⁽²⁾, prestamoa / izaki⁽³⁾, egonda / errefusatu⁽⁴⁾, ukatu.

Berdintasun Foroa egingo dute urrian zehar Amurrioko kultur etxean

ERREDAKZIOA | Irati Mendiguren

Amurrioko udalak eta Aurre-raka emakume taldeak kafe-solasaldiak antolatu dituzte Berdintasun Foroaren baitan. Ekimenak hilabeteko iraupena izango du. Urrian zehar, hiru saio egingo dituzte.

Atzo egin zuten aurreneko hitzaldia. Audioko Biok gizon taldeak, "Gizonak berdintasunaren alde" gaiaren inguruan mintzatea proposatu zuen.

Bigarren saioa, urriaren 23an izango da eta transexualitatea izango dute hizpide.

Urriaren 30ean izango da azken saioa, eta "zaintza partekatua" izango dute aztergai.

Solasaldi guztiak Amurrioko kultur etxean egingo dira, 18:30etatik 20:30ak arte.

Argazki erakusketa

Bestalde, Amurrioko Berdintasun Arloak, erakusketa bat prestatu du. Ruth Agilar teknikariak azalduenez "Gizonak berdintasunaren alde" du izena, eta urriaren 21etik 31 arte egongo daikusgai La Casona eraikinean.

info+: Aiaraldea Irratian Ruth Agilar teknikariari egindako elkarrizketa

Landaketa egingo dute ziklogenesiak kaltetutako basoetan

ERREDAKZIOA | Jaione Pagazaurtundua

Amurrioko udalak bere mendialde publikoaren lursail handi batean zuhaitz landaketak egingo ditu. 2010eko ziklogenesiak kaltetu zituen zenbait lursailetan egingo dira lanak.

Azaldu dutenez, lurzorua ren higadura, paisaiaren degradazioa, emankortasunaren gutxitzea... ekiditea litzateke helburua.

61 hektareatan landaketa

Landaketak 61 hektareatan egingo dira. Horretarako, lau fase aurreikusi dituzte.

Landatuko diren espezieen artean, eskaintzen duen emankortasunaren eta merkatuaren arabera *Pinus radiata* litzateke koniferoen produkzioen oinarri nagusia.

Ekosistemen babeserako dibertsifikazio neurriak ezinbestekoak dira eta ondorioz leku heze eta emankorretan *Sequoia sempervirens* landatzea proposatzen da. Beste 15 hektarea lursailetan *Pinus pinaster*, gaztainondoak eta haritz amerikarra landatuko dira.

Azkenik, haritzaren birsortzea nabarmentzen ari den beste 2 hektarea itxi egingo dira ganaduaren sarrera ekidin eta zuhaitzak eragozpenik gabe haz daitezen.

Artziniega

Gobernuaren ordezkariak Espainiako bandera jartzera behartu du Udala

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

Espainiako Gobernuaren ordezkariaren eskaera betetz, urriaren 11tik Espainiak bandera ipinita dago Artziniegako udaletxeko teilatuan. Eskualdeko herri gehienetan eman da urrats hori. Badira hilabete batzuk udalean ohartarazpena jaso zela. 39/1981 legearen arabera Espainiako bandera administrazio guztietako eraikinen kanpoaldean eta barrualdean egon behar da. Azkenaldian, oster, legearen aplikazioa saihestearren, ez da banderarik egon, ez ikurrinik, ez espainiar

banderarik. Orain, udalak eskakizuna onartu eta beste udal batzuen ereduari jarraiki, bi bandera ofizialak teilatuan ipini ditu. Biak dira neurri txikikoak. Aiaraldean Audio eta Amurrioko udalak izan ziren legea betetzen aurrenak, 2009an, eta beste udal asko, Urduña edo Aiarakasu,

Artziniegakoaren prozesu be-rean daude. Euskal Herrian, nazionalitate ezberdinen banderak jartzea erabaki zuten udal batzuk, baina epaitegiek atzera bota dute.

Aiaraldea

_Iruditan



LOMCEn legeak hezkuntza eragingo dituen aldaketak salatzen mobilizazioak antolatu zituzten Amurrian eta Laudion hainbat eragilek, Euskal hezkuntza sistema eraikitze beharra azpimarratuz. Argazkia: Aiaraldea.com

_sozioekonomia



Itziar
Larrazabal
ELA sindikatua

—Argia

Uztailaren 7a pasa da, orain zer?

Uztailaren 7az geroztik, ehunka enpresek (patronaletako agintarien aholkuei jarraiki) aurrerantzean lan baldintzen inguruko erabaki guztiak enpresaburuen esku gelditzen direla komunikatu diete idatziz beraien langileei. Hau da, aurrerantzean Estatuko lan-hitzarmenetan jasotako miseriazko lan-baldintzak inposatzeko aukera dagoela jakinarazi diete. Eta are gehiago, Langileen Estatutuaren Legeak jasotzen dituen lan baldintza minimoak inposatzeko aukera ere nabarmendu dute hainbat enpresek, betiere beharginei zuzendutako eskutitz "informatiboetan". Egoera gogorra da. Eta ez du hobera egingo. Ez behintzat langileok gauzak aldatzeko borrokan murgildu artean. Beraz, egoerari buelta emate aldera, behar-beharrezkoa dugu enpresetan ondo antolatzea eta eduki duinak bermatuko dituzten enpresa-hitzarmenen alde borrokatzea (Lan Erreformen aurkako klausulak barne: ultra-aktibitate mugagabea jaso, lanaldi erregularra bermatu, inposatutako arbitrajea baztertu...). Derrigorrezko ezarpena izango duten enpresako hitzarmenen alde borrokatu behar dugu. Ez dugu gomendio hutsa den lan-hitzarmenik nahi.

Urriak 21-25eko mobilizazio, kontzientziazio eta greba asteak bide horretan sakontzeko balio behar du. Espainiar zein euskal patronaletako goi-kargu zikoitzen estrategia zapuztu beharra baitago.

2007tik %160 egin du gora lanik gabe dauden herritarren kopuruak Aiaraldean



Lanbideren bulegoan hainbat herritar Argazkia: Iban Pagalday

ERREDAKZIOA I Juanjo Bastera

Langabezitasak gora egin du berriro Aiaraldean. Irailean erregistratutako langabetu kopurua 2012 urte amaieran baino %6.57 handiagoa izan da.

Irailekin alderatuz, 689 langabe gehiago daude eskualdean.

Urduñan, Amurrio eta Laudion goraka ari da langabezia etenik gabe. Urduñako langabezi tasa, esaterako, Hego Euskal Herriko batez bestekotik hamarren bat behera dago.

Amurriok erreferentzia hori gaintzen du.

Laudio berriz, %20,5eko tasarekin, euskal eremuan langabezi tasa altuena duten udalerrien multzoan dago.

2007 urtean krisi ekonomikoa azaldu zenetik langabezi tasa %160 hazi da Aiaraldean. 1.538 pertsona izatetik 3.536 izatera igaro baita langabetu kopurua eskualdean.

Egoera hori bizi duten pertsona barmenena emakumeena da.

Emakumeak, kaltetuen

Emakumeen enplegu maila ari da bereziki pairatzen⁽¹⁾ egoera hori. Iraileko datuek agerian utzi dute Aiaraldeko emakumeengan langabeziaren gorakadak duen eraginak alarma gorri guztiak piztu behar dituela.

Artziniegan %19,2ko tasa jaso da, Amurrio eta Urduñan %21,5 eta Laudion %25,5era iritsi da emakumeen artean ematen den langabezi kopurua.

Begi-bistako datu hauek egoera larriaren neurria erakusten dute eta agerian uzten dute inoiz baino premiazkoagoa dela erakunde publikoen aldetik enpleguaren sostengurako ekimenen beharra.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa-ko herrialdeetako langabezi tasei erreparatuz gero, Laudio emakumezkoen tasa altuena duen hirugarren udalerria da, benetan arduratzekoa den egoera islatuz⁽²⁾.

Kontratazio maila, eskasa

Aiaraldean ematen ari den kontratazio maila, bestetik, eskasa da.

Iraileko datuen azterketak datu argigarriak eskaintzen ditu honen harira, kontratuen iraupena kasu: hilabetearen bueltan izenpetutako 1.326 kontratuen %63,34ak 19 egun baino gutxiagoko iraupena izan zuen. Hartara, iraupen txikiko

kontratu hoi en diak 12 egunetako iraupena ere ez zuen gaintitu.

Hego Euskal Herrian ematen ari den egoeraren garapen mimetiko ari da Aiaraldean suertatzen: langabeziak gora egiten du eta prekaritatea areagotzen da. Oso baldintza kaskarretan⁽³⁾ eskaintzen dira kontratuak eta tamalez, gobernu eta administrazioetako arduradunek erranak erran⁽⁴⁾, egoerak ez du oraindik behea jo.

Hiztegia: Pairatzen⁽¹⁾, jasaten / islatuz⁽²⁾, erakutsiz / kaskarretan⁽³⁾, txarretan/ erranak erran⁽⁴⁾, esanak esan.

3.532
LANGABETU GUZTIRA
ESKUALDEAN

- ¹ LAUDION 1.747 (%20.5)
- ² AMURRION 882 (%17.7)
- ³ AIARAN 155 (% 10.9)
- ⁴ ARRANKUDIAGA 58 (%12.1)
- ⁵ ARTZINIEGAN 135 (%14.3)
- ⁶ OROZKON 111 (%8.8)
- ⁷ URDUÑAN 359 (%17.3)
- ⁸ OKONDON 79 (%13)
- ⁹ ARAKALDON 6 (%9.1)

LIPmesa enpresak ateak itxi ditu betiko



Behin betiko itxi dute LIPmesa enpresa. Eskualdeko lantegi garrantzitsuen artean zegoen, 140 pertsonen ematen baitzuen lana. Langileei maiatzetik zor zaizkien soldatak FOGASaren bitartez kobratuko dituzte, baita 18.000 euro gehiago.

Sinatutako akordioaren arabera, beharginen kolektiboak milioi bat euro jasoko du LIPmesaren makinak, eraikina eta lurra saltzen badira. Enplegu-erregulazioko espedientearen ostean hartzekodunen

lehiaketan murgildu zen enpresa eta nahiz eta erosleren bat agertu behar zela adierazi, azkenean langile guztiak kalera joan dira eta langabezia kobratzeko zain daude.

1943an sortu zen LIPmesa enpresa. Lantegia, Aretan kokatuta dago. Azken hilabeteetan fabrikaixtea saihesteko mobilizazioak egin dituzte bertako langileek. Laudio-ko udalbatzak Lipmesakoei babesa adieraziz adierazpen instituzionala egin zuen irailean.

Zure **IDEIEN** garapenerako beharrezko baliabideak eskaintzen ditugu: zure **DISEINUAREN SORTZETIK**, proiektuaren amaierako **INPRIMATZERA**.



Maskuribai industrialdea, Z-10 · 01470 Amurrio (Araba)
Tel. 945 89 08 46 · adi@aiaragrafik.com
www.adizentrografikoa.com



LANPOSTU ESKAINTZA

Bigarren Hezkuntzan irakasle arituko den Historian lizentziaduna, EGA eta irakasle gaitasuna daukana, behar du Laudio Ikastolak

Curriculum bidali urriaren 24a bitartean laudio@ikastola.net postara edo Motxotekale, 16 01400 LAUDIO helbidean aurkeztu.

_jendarte

Pobreziaren nazioarteko eguna

Diru gutxi eta behar ugari

Hilero 1100 euro baino gutxiago jasotzen dutenak pobrezian bizitzeko arriskuan daude. Aiaraldean 2013an RGI motako 1090 laguntza eman dira. Eskaren %57,2 emakumeek egin dute., etorriberriak %28 baino ez dira izan



Krisi ekonomikoa medio, geroz eta familia gehiagori eragiten dio pobrezia-egoerak Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Gaur da Nazioarteko Pobreziaren Eguna. Askorentzat, baina, egunero da. Izan ere, krisi ekonomikoa hasi zenetik bikoiztu egin da pobrezian bizi direnen kopurua. Espainian, esaterako, ia hiru miloi pertsona bizi dira hilabetearen 307 euro baino gutxiagorekin, Caritasen aurkeztu duen memoriaren arabera.

Pobreen kopurua hazi den bezala, aberatsen igoera ere nabaritu dute: "Espainian 402.000 pertsona dira aberatsak, iaz baino %13,2 gehiago".

Munduko biztanleen %0,7ak du aberastasunaren %41. Hori dio Credit Suissek egindako azken ikerketak. Azterketaren arabera, populazioaren %68aren ondasunen⁽¹⁾ batuketak -3.200 miloi pertsona- ez da iristen aberastasunaren %3ra.

Munduko 12 herrialde aberatsen artean daude, hurrenez hurren, Estatu Batuak (%42), Japonia (%8), Frantzia (%7), Alemania (%5), Ingalaterra (%5), Italia (%5), Txina (%4), Australia (%4), Kanada (%3), Suitza (%2), Espainia (%1) eta Taiwan (%1).

Ramon Ibeas Arabako Caritasen idazkariak dioenez, soluzio konplikatuak du. Ondorioak, aldiz, argiak. Lehena, etxebizitza arazo bilerak: "Ez da soilik etxebizitzaren afera⁽²⁾, berogailua konpontzea edo bestelako extra batzuk ateratzen direnean jendeak ezin ditu ordaindu. Hipotekak, alokairua... ordaintzera iristen ez direnak batzuetan pisuz edo herriz aldatu behar dute, horrek suposa-

tzen duen guztiarekin". Bigarrena, emakumeen egoeraz arazotzea: "Amabakarrak gurasotzat duten familiak behartsu⁽³⁾ talde gisa azaltzen ari dira. Ez dute lanik aurkitzen, eta gizonak lana galtzen dutenez ez diete dagokien diru kopurua pasatzen".

Oinarritzko soldata laborala 645 euroan dago. Ibeasen esanetan, ordea, hilero 1100 euro baino gutxiago jasotzen dutenak dira pobrezia arriskuan bizi direnak. "2008an Araban, %5,8 iristen zen muga horretara. Azken urteetan, %7,3. Beraz, %94 ez da iristen ekonomikoki oinarritzotzat jotzen den bizi kalitatera".

Etxebizitza, lana eta jana arazo

Estelak eta Miriamen Aiaraldeko Caritasen egiten dute lan. Pobrezia areagotzen ari den joera dela argi dute, "kroniko bihurtzen ari da, geroz eta iraupen luzeagoa du gainera, oinarritzko beharrak ez baitira bermatzen".

Aiaraldean, etxebizitzarekin lotutako arazo ugari gertutik ezagutu dituzte: alokairuak, fakturak... Baita elikagaiak eskuratzeko baliabideen gabeziak ere. Alabaina, egungo jendarte ereduak sortzen dituen bakardade arazoak ere nabarmentzen dituzte. Horregatik, norbanakoa babestea dute helburu. Eskaintzen dituzten laguntzen artean daude baliabide sozialak judizialak.. eskuratzeko aholkuak, lanmerkatuan sartzeko bideak edo arropen entrega.

Aurten aiaraldeko 1090 herritarrei eman zaie Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza. Iaz, 941 izan ziren. Horietatik %57,2 emakumeak dira

Ibeasen hitzetan, etorriberrien egoera larria da: "Lanik eta papeirik ez dutenez pobrezia-er faktore handietako bat dira". Uste askoren kontra etorriberriek ez dute aparteko laguntzarik jasotzen. Juanan Urkijo Laudioko udaleko Ongizate arloko arduradunaren arabera Laudio etorriberrien familien

%50 haien diru sarreretatik bizi da.

Aiaraldeko egoera

Diru sarrerak bermatzeko laguntza (RGI) jasotzen duten %28 soilik da etorriberria. 2012an, %31,03 ziren. Aiaraldean, 1090 eskaerari eman zaie laguntza hori. Horietatik %57,2 emakumeak izan dira. 2012an 941 biztanleri luzatu zitzaizkien laguntza, %61,53 emakumeak zirelarik.

Caritasen Ongizate eta hezkuntza gaietan laguntzeko bi langile ditu eskualdean. Eta, aktiboki lan egiten duten 80 bolondres. "Bolondresak dira Caritasen indar eta protagonistak, pertsonen hazkuntza gertutasunetik jarraitzen dutelako". Laudion, Amurrioren eta Urduñan arretera zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Laguntza eskaerei dagokienean lau perfil nabarmentzen direla diote. Batetik, sare sozialarengatik momentu zailak igarotzen ari diren pertsonak; atzeritarrak kasu⁽⁴⁾. Bestetik, seme edo alabak ardurapean dituzten emakumeak. Langabezia denbora asko daramaten pertsonak ere hurbiltzen dira Caritasera. Edo, etxerik ez duten herritarrak, arropa, janari edo garbitasuna eskuratzeko.

Elikadura aintzat hartuta pobreak ekonomikoki zailtasunak dituzten familietako haurrei eragiten die gehien. Helduei dagokienean, aldiz, 55 urte inguruko gizon-emakumeak aipatzen dituzte, lanmerkatuan sartzeko aukeragutxi dituzte eta. Izan ere, etxebizitzetako zerbitzuetan geroz eta langutxiago dago.

Egoera hobetzeko, instituzioek estaldura soziala hobetu behar luketela pentsatzen dute Aiaraldeko Caritasen: "Ezin dira orain arte lortutako eskubide sozialak murriztu, osasunarena bezala". Jendartean, aldiz, bestelako eredu sozial baten beharra ikusten dute, interes ekonomikoetan oinarritutako ez dena: "Pertsonen harremanak eta ondasuna kontuan hartuko dituen, konpartitza eta elkar laguntzea zer den ulertuko duena. Gauza gutxiarekin biziko dena, gutxienez beste batzuk bizitzeko aukera izan dezaten".

Hiztegia: Ondasun⁽¹⁾, aberastasun / Afera⁽²⁾, auzia / Behartsu⁽³⁾, pobre / kasu⁽⁴⁾, adibidez.



Jonatan

Moreno Carranza

PARTE HARTZEAN aditua

_Hankamotz

Gobernu irekia

Badira 10 urte EHU/UPVn egin nuela parte hartze teknika eta metodologiaren inguruko graduondokoa. 10 urte hauetan, gutako asko ari gara irmo herritarren parte-hartzearen alde ikerketetan zein prozesuak aurrera eramaten.

Aurrerapauso antz eman ditugu Euskadin parte hartzearen garapenean. Hala ere amets edo asmo asko ezerezean geratu dira.

Azken bi urte hauetan, gogor entzuten ari da "Gobernu Irekia"-ren kontzeptua. Ez da hain berria, 70ko hamarkadan Erre-uma Batuan honen inguruko hausnarketa eta ekintza zehatz batzuk ere eman ziren. Gobernu Irekiak hiru (edo lau segun zeinen arabera) oinarri ditu; parte-hartzea, gardentasuna, kolaborazio publiko-pribatua, eta "accountability" edo jendaurrean kontu ematea.

Eta orain, galdera da: ba al da momentua modu irekiago batean gobernatzeko? Prest al gaude herritarrak zein euskaraz instituzio publikoak Gobernu Irekiak suposatzen duen al daketa gauzatzeko? Uste dut aurrera egin behar dugula erakunde publikoak hobetu ditzaizkeen ekimenak garatzen baina zalantzak ere badituzte. Hemen uzten ditut zuen hausnarketarako: Orain arte garatutako parte hartzea behar bezain ona da proiektu handiago batean jotzeko? Ezagutzen ditugun gardentasun ekimenak herritarrek informazioa eskuratu eta ulertzea bermatzen dute? Kontu emateak herritarrok gus-tuko ez dituzten ekimenak edo gobernuak aldatzeko benetako aukerak ematen dituzte?

Frackingaren labirintotik ateratzeko koordenatuak

Hautsak harrotu ditu haustura hidraulikoak Aiaraldean, baina zehazki frackingaren itzala zein den gutxik dakite. Zeintzuk dira eskualdean indarrean dauden baimenak? Eta alde zein aurka daudenen argudioak?



Fracking-a ustiatzeko putzu bat AEBetan Argazkia: Am

ERREDAKZIOA | | Aitor Aspuru

“Nahizetafrackingaedohaustura hidraulikoaren teknika oraindik Aiaraldera praktikan ez den heldu, bere oihartzunak eztabaida ugari piztu ditu hainbat herritan. Ez da harritzekoa Gobernu Espainiarrak dagoeneko eskualdean bi baimen onartu dituela aintzat hartzen bada; Mirua eta Usapal proiektuak, hain zuzen ere. Baimen horiek Arabako hiru herri hartzen dituzte haien baitan; Amurrio, Aiara eta Artziniega, hurrenez hurren. Mirua eta Usapal baimenak 2008an onartuziren eta ingurumen inpaktuaren adierazpenaren emaitzen zain daude jasotzen dituzten lanak abiarazteko. Hala ere, gatazka⁽¹⁾ gehiago sortu ditu orain arte Eusko Jaurlaritzak


emandako Saia baimenaren harira egindako frogak. Printzipioz, Saiak gas arrunta ustiatzeko⁽²⁾ balio du. Berez, ekainean egindako ikerketek ez dute haustura hidraulikoa erabili. Froga sismiko soilak izan dira. Dena den, herritar anitz⁽³⁾ agertu ziren Tesla enpresak Orozkon, Arrankudiaga-Zollon, Arakaldon, Laudion eta Aiaran egindako lanen aurka. Arrazoia Iker Fiallegas Fracking ez Aiaraldeako kideak azaldu du: “Saiabaimenaren eskubideen jabea SHESA da eta enpresa hau Energiaren Euskal Erakundearen menpe dago. Nahiz eta Saia baimenak frackinga egiteko ez duen balio, egin diren ikerketen emaitzak haustura hidraulikoa abian jartzeko baimena lortzeko balio dezakete”.

6 udalek onartu dute Fracking-aren aurkako mozioa: Arrankudiaga-Zollok, Aiarak, Okondok, Orozkok, Amurriok eta Urduñak.

Horrelako adierazpenen aurrean, SHESA k zein Energiaren Euskal Erakundeak behin eta berriro esan dute Saia baimenaren eremuan⁽⁴⁾ haustura hidraulikoa egiteko asmorik ez dutela. Hala eta guztiz ere, Iker Fiallegasek kontrako iritzia du: “Mirua eta Usapal baimenak eskatu badi-tu SHESA k, zergatik ez du beste bat eskatuko eskualdean?”

Tokiko erakundeen jarrera
Duela urte bat baino gehiago Fracking Ez Arabak mozio kanpaina hasi zuen. Aurkarien artean dagoen talde ospetsuenaren helburua udalek bere oposizioa erakustea da. Horrela, Araban zein Bizkaian hainbat udalerri “Frackingik gabeko herriak” aldarrikatu dituzte bere buruak. Eskualdean, Aiaran, Okondon, Arrankudiaga-Zollon, Orozkon, Urduñan eta Amurrrion onartu da testua. Kasu batzuetan adostasun zabala lortu du mozioak. Adibidez, Orozkoko talde politikoa guztiek alde bozkatu zuten. Beste batzuetan testua onartu ez ezik herriko sarreretan haustura hidraulikoaren aurkako errotuluak jarri dituzte, Amurrrion kasu. Artziniegan eta Arakaldon mozioak ez dira oraindik landu. Laudio kasua berezia da. Bi aldiz aurkeztu da mozioa eta lehenengo aldian ez zen onartu, Bilduk eta Omiak bakarrik bozkatu egin zuten testuaren alde. Bigarrenean, PSE-EEK eta EAJ-k testu bat gehitu zioten ingurumen aldetik berme legalak eskatzeko.

Baimenen ahalmena
Frackingaren aurkako mozioen balioa sinbolikoa da, udalek legalki ez baitute eskumenik. Interes orokorraren menpe dagoenez, haustura hidraulikoaren inguruko erabakiak ez dituzte udalek hartzen. Mirua eta Usapal baimenen erkidego ezberdinetan eragiten dutenez -Kantabrian, Burgosen, Gaztela eta Leonen, Nafarroan eta Euskadin- Gobernu Espainiarrak du azkenengo hitza. José Manuel Soria Industria Ministroak mai⁽⁵⁾z erakutsi du PPren gobernuaren teknika horren erabilaren alde dagoela. Alderdi Popularrak duela gutxi adierazi du haustura hidraulikoa errealtate izango dela. Hitz horiek erkidego ezberdinen lege biltzarretan onartu diren legeei zuzendutako mezua dira. Kantabriako eta Nafarroako gobernuak frackingaren aurkako legeak jaso dituzte. Errioxan aurre-rapausoak eman dituzte bide berdinetik. Euskal Autonomia Erkidegoan herri ekimen lege gilearen aldeko sinadura bilketa egin zen eta Legebiltzarreko Mahaiak atzera bota zuen otsailean, Naturaren Babeserako Legearen aldaketa bozkatu behar zutela argudiatuz. Fracking ez Arabak oso jarrera kritikoa azaldu du horren inguruan eta salatu du pasa den astean onartutako lege aldaketan ez dagoela haustura hidraulikoari buruzko aipurik⁽⁵⁾. Gauzak horrela, saiakera berria egingo du plataformak alderdiek horrelako legea bozkatu dezaten. Frackingaren aurkako taldeek, beraz, laster ekingo diote sinadurak biltzeari. Bestalde, urriaren 19an, fracking-down Egunean -Nazioarte mailan haustura hidraulikoaren aurkako mobilizazio egunean- Kuartangon teknika horren inguruko herri-galdeketa gauzatuko da. Gobernu Espainiarrak udalaren iniziatiba debe-





erica's Natural Gas Alliance

Frackingaren aurkako nazioarteko egunean hainbat protesta ekimen antolatu ditu “Fracking ez Aiaraldea” plataformak.

kin mahai bat jarriko dute eta murala margotuko da Zumalakarregin. Arratsaldean, Kuartangora joateko deia luzatu dute. Horretarako, autobus bat igaroko⁽⁶⁾ da Arrankudiaga-Zollo, Audio, Amurrio eta Urduñatik Kuartangora joateko, bertan jaia ospatuko baitute galdeketa dela eta. Hurrengo egunean ere, Laudion, “Promise Land” filma emango dute Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeko areto Nagusian. 17:30ean eta 20:00etan izango dira emanaldiak. Haustura hidraulikoaren aurkakoek pelikula ikusteko deialdia zabaldu dute, eta irteeran informazioa banatzeko asmoa dutela jakinarazi.

Froga sismikoak

Azaldu dutenez, Saia baimenak jasotzen dituen froga sismikoek eragindako erreakzioa ez da soilik mobilizazioen bidez adierazi. Energiaren Euskal Erakundeak ekainaren 21ean argitaratutako oharra Orozkoko aldean egindako sabotaiak kalte ugari sortu zituela adierazi zuen.

Juan Cruz Vicuña SHESAko lehendakariak mahai-inguru batean parte hartu behar zuen egun berean Orozkon Fracking ez Araba eta Aiaraldeako kideekin eztabaidatzeko, baina ez zen joan.

SHESAk froga sismiko guztiak egin gabe bukatutzat eman zituen lanak, Zeberion edo Galdakaon, besteak beste, ez zituen egin eta.

Hiztegia: gatazka⁽¹⁾, eztabaida / ustiatzeko⁽²⁾, esplotatzeko / anitz⁽³⁾, asko / Eremuan⁽⁴⁾, alorrean / Aipu⁽⁵⁾, adierazpen / igaroko⁽⁶⁾ pasatuko.

✚ **info:** Frackingaren aurkako mobilizazioen bideoa

Zer da frackinga?

Frackingaren boom-a ulertzeko, lehenik eta behin abian egon daitekeen krisialdi energetikoaren jakitun izan behar da. Petrolioaren erreserbak gero eta txikiagoak dira eta geratzen direnak ustiatzeko gero eta baliabide energetiko handiagoak erabili behar dira. Horrek, errentagarritasuna mugatzea suposatzen du. Lehen interesgarriak ez ziren baliabideak helburu bilakatu ditu krisialdiak.

Testuinguru horretan, energi baliabide berriak lortzeko muturreko teknikak deritzenak jaio dira. Helburua baliabide zailak lortzea da. Horien artean daude frackinga eta asfalto-hareak, besteak beste.

Haustura hidraulikoaren helburua ez da teknika arrunten bitartez ustiatzen den gasa eskuratzea. Normalean, gas hori poltsetan pilatuta dago lur azpian, azaletik ez oso urrun. Poltsa zulatuz gero erraz ateratzen da azalera. Frackingak ateratzen duen gasa harri sakonetan dago preso, 2000 edo 5000 metro-tara. Ez da poltsetan topatzen, harri egituren baitan baizik.

Lur azpitik ateratzeko haustura hidraulikoak zulaketa bertikala eta horizontala uztartzen ditu. Bertikalak harri egituretara heltzeko balio du. Horren ostean zulaketa horizontala eta gidatutakoa egiten da. Leherketen bitartez harriak arrakalak⁽⁶⁾ eragiten zaizkie eta horren ostean presio handiaren bidez ura sartzen da pitxaduren artean horiek irekitzeko. Aurrez, ura harea eta osagai kimikoekin nahas-

Haustura hidraulikoa egiteko lur azpian osagai kimikoekin nahasten den ura sartzen da. Aurkarien kezka gehienak ura eta osasunari daude lotuta.


ten da gasaren irteera errazteko. Gas arruntarekin alderatuz, gas hori ez dago poltsetan, sakabanatuta baizik. Beraz, zulaketa ugari egin behar dira eremu zehatz eta ez bereziki zabala ustiatzeko. Eta jakina, prozesua behin eta berriro errepikatzea beharra dago. Gizakien irudimenaren lorpenaren itxura duen teknikak, hala ere, aurkari anitz topatu ditu. Hauek dira batzuk arrazoietakoz batzuk. Hasteko, lur okupazio handia sortzen duela salatzen dute zenbaitek⁽⁷⁾, hainbat putzu ireki behar baitira azalera txikia esplotatzeko. Bestalde, uraren kontua dago. Urarekin nahasten diren osagai batzuk oso kaltegarriak dira; azido kloridrikoa eta bakterizidak besteak beste. Printzipioz ehuneko txikiak erabiltzen dira,

baina ur kantitate handiak behar direnez putzu bakoitzean -Estatu Batuetan 9000 eta 29000 ur tona batz besteko- lur azpian sartzen diren osagaien kantitateak asko dira. SHESAk esandakoaren arabera, Enara 1 putzu esploratorioan 31 250m³ ur, 1 120 tona hare, 57 m³ azido kloridriko eta 15.6 m³ bakterizida beharko dira. Aurkarien ustez, segurtasun aldetik ez dago berme askorik eta osagai horiek gizaki eta animaliek kontsumitzen duten uretan bukatu dezakete. Estatu Batuetako Cornell Universityk 2012an egindako txostenean frackinga abereek zein bere jabeek zituzten gaitzekin lotu zituen, adibidez.

Horretaz gain, ura nondik atera behar den galdera behin eta berriro errepikatu dute. Fracking ez Araba plataformaren kalkuluen arabera, 62.000.000.000 litro ur beharko dira Gran Enara baimenak aurrekusi dituen 2000 putzuak ustiatzeko.

Ur kantitate horiek mugitzea kamioi asko behar dira, eta errepide eta azpiegituretan kalte handiak eragiten dituzte, ez baitaude prestaturik. Gainera, kamioi horiek izan ditzaketen istripuak oso larriak izan daitezke, osagai kimikoak garraiatzen baitituzte.

Uraren aldetik, haustura hidraulikoaren kritikoek azpimarratzen duten beste kontua bat azalera-tzen den ur kutsatuarekin zer gertatzen den da. Tratatzeko instalaziorik ez baitago, eta horien eraikuntzaren erantzukizuna ez dago argi.



Gaztainak, historiaren fruitu

Urriaren 27an ospatuko dute Orozkon Gaztain Eguna. 10:00etan Zubiaur enparantzatik abiatuta “Kirikiñausien ibilbidea” egingo dute. Besteak beste, inguruko basoetako errotetan, gaztainondoetan eta burdinoletan gordetako Historia ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek.



Kirikiñausien ibilbidean jendea azalpenak entzuten Argazkia: Gartzzen Garaio

ERREDAKZIOA | I Izar Mendiguren Cosgaya

Urriaren 27an ospatuko dute Orozkon hamahirugarren Gaztain eguna. Supelaur elkarteak antolatuta, basoetako ondare etnografikoa ezagutzeko parada⁽¹⁾ izango da. Ibilaldia 10:00etan aterako da Zubiaur plazatik. Jose Anjel Aramendi antolatzailearen hitzetan bideak 7-8 kilometroko luzera du, “eta paisaia oso politak”. Azken urteetan, goizean zehar, herriko historia eta ondareak ezagutzeko txangoa⁽²⁾ egiten dute. Eguerdian, aldiz, herri bazkaria. Arratsaldean, trikitilari, txistulari eta bertsolariekin lagunduta igarotzen dute.

Duela hamar urte erabaki zuten Gaztainaren ibilbidea osatzea. Bidea garbitu, markatu eta ezagutarazteko larunbatero 6-8 lagun aritu dira bertaratzen. “Azken asmoa eskuorri txukun bat egin, bidea markatu, planoak osatu eta bidea zabaltzea da. Orozkoko museo zein nekazal etxeetan ere utziko ditugu. Edozeinek, edonoiz ezagutzeko aukera izan dezan”. Era horretan nahi dute ikasle zein herritarrek basoa beste era batera ikustea: “Hemen jendea basoetan eta basotik bizi zen”.

Proposatutako bideak kirikiñauseak, errota eta teileriak batzen ditu. “Ur jauzi polit bat ere bada. 15-20 metroko altuera du. Horiek Orozkoko toki sekretuak dira, ostonduta ⁽³⁾ daudenak”, dio. Orain

arte, oso harrera ona izan du Gaztain egunak: “Eguraldiaren arabera kopurua aldatu egiten da, baina 700-800 lagun ere batu izan gara”.

Mendeetan zehar, garrantzitsu Gaztainondoek, eskualdeko historiaren zati handi bat markatu dute. Orozkon, esaterako, kirikiñause deitzen diote. Aiaran, aldiz, gortina. Aramendiren esanetan, Orozkon eta Baranbion daude inguruan katalogatuta dituzten kirikiñausierik handienak: “Batzuk oso handiak dira, 7-8 metrokoak ere badaude. Asturiaseko batzuentzat zezen plaza bat da”. Enrike Ibabe adituaren iritziz, bigarren errepublikararte



Jose Anjel Aramendi Supelaur elkarteko kidea

“Azken asmoa eskuorri txukun bat egin, bidea markatu, planoak osatu eta Kirikiñausien bidea zabaltzea da”

-1930- oso garrantzitsua zen. Gerra osteko goseteetan asko eragin du: “Ez bakarrik jateko. Sua pizteko egur gisa, azala, elikagaia... asko saldu da”. Aramendik dioenez, horrek, gaztainaren inguruan kultura bat bazela erakusten du horrek: ikatza egiteko negozioa, oholak...

Euskal mitologian ere utzi du arrastorik. Horren adibide da, Martintxu eta jentilen istorioa. Izan ere, euskaldunek ez omen zekiten jentilek erreminta sortzea nola lortu zuten: “Kondairak ⁽⁴⁾ dio Martin jentilengana joan zela haren osabak zerrra bat zuela esanez. Kontxo! Orduan konturatu da gaztainak zertarako balio duen! erantzun zion jentilak. Ez, baina konturatuko da! esanez agurtu zuen Martintxok”.

Aiaraldea, ondaretan aberats Orozko inguruetan 25 errota ezagutu dituela dio Aramandik. “Hemendik 20 urtera jaio zuten den ume batek ez du jakingo errota bat zer den ere ez”. Horregatik du garrantzitsutzat ondareen transmisioa: “Ondarea kanpora ateratzeko Gaztain eguna izendatu genuen, berreskuratu eta jendeak gaztainaren garrantzia ezagutzeko”.

Hala, Orozkoko ondareen zerrrendan ditu errota, burdinolak, teileriak, kareak egiteko karabiak... “Ezkutuan dagoen tolar bat duen baserritxo bat ere bada, sagardotegi izandakoa”. Itzina mendian, aldiz, ikatza egiten zen. “Laster Itzinara ezingo gara sartu pagoz josi-ko delako. Guk han lau artalde ezagutu ditugu. Gaur bakarra dago, eta txikia”. Aretako Anuntzibai jauregia, aldiz, Erdi Aroko toki estrategikotako bat zela gogorarazi du: “Gaur egun dorretxea jauzia du, ermita, errota eta burdinola sasiz jantzita egongo dira... Autopistak itsutu zituen”. Kirikiñauseen bidez harago, ordean, bada ondare gehiago. Aretatik Orozkorantz joz ⁽⁵⁾ Torreza-rraren dorretxeaz gain, burdinola eta errota bat dago. Olabarri auzoan, berriz, Bizkaiko etxerik handienetakoa: “Hor ere burdinola txiki bat eta errota zegoen. Arbaizatarrak gerra ostean zentral elektriko bihurtu zuten”. Uxuluxen, aldiz, errota, bi burdinola txiki eta handi bat: “Bigarren karlistadan ura eramateko 150 metroko tunela egin zuten eta hor hon-dakinak daude”.

Hiztegia: Parada⁽¹⁾, aukera / Txangoa⁽²⁾, ibilaldia / Ostonduta ⁽³⁾, ibilaldia / Ostonduta ⁽³⁾, ezkutatuta / Kondaira ⁽⁴⁾, istorioa / Orozkorantz joz ⁽⁵⁾, joanez.



Inma Roiz IDAZLLEA

—Kamerinoa

Hori dena ere bada Manuela

Sarritan pentsatzen dut eleberri hau jaio baino askoz lehenago hasi nintzela idazten, beste batzuk bizi zirenean barru-barruan naraman Aiarako lur honetan. Haiek gudan utzi zuten arrastoa, euren egiteko moduak, amets eta asmoak. Sor-tu nintzenean hori guztia nekarren aldean: haran eta base-rrietako antzinako historia, bertokoek landutako lur heze eta emankorraren historia. Bertoko harrotasunaz eta berbetaz beterik nentorren. Haiek denek, euren bizitzek, euren hildakoek, zereginiek, modu eta sentimen-duek nire oraina iraganarekin uztartuz ulertzen laguntzen di-dan kontakizuna betetzen dute. Munduaren memoria deritzon horrekin zerikusia duen zer-bait da.

Sarritan uste dut haien gra-fia dela lerro hauetan azalerat-zen dena; nirearekin apaindua, jakina. Manuela idazten nenbi-lela antzinako doinuak entzun ditut, pilota baten soinua eli-zako horman jotzean. Dastatu dut gaurko ardoek –zorionez-ia guztiz galdu duten txako-lin zaharraren mingotsa. Berri-tu egin ditut hil arte harria be-zain gogor zirauen emakume horren pasioak, hiru urte luzez artxibo eta paper-apurretan “gu” haiekin topo egitera eka-rrri nauten familia-loturak bila-tuz. Munduaren beste puntara emigratu ahal zuten zorioneko horiek joaten ziren lekura joan naiz eta aurkitu dut leku bat non gure abizenek, hiri baten muina osatzen zuten: Nueva Españako San Miguel el Grande hiria. Eta han izan nuen hango seme-alabek herria askatzen izandako ibilera eta borroken berri. Hori dena ere bada Ma-nuela.



_kultura

_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



ZINEMA
**LAS BRUJAS DE
ZUGARRAMURDI**
Txetxu Urkijo.

"Gidoia esaldi indartsu eta
ondo idatziez josita dago.
Honela ezinezkoa da lan duin
bat ez borobiltzea."



MUSIKA
**LA PANDILLA
VOLADORA**
Arkaitz San Jose.

"Muchachito, Canijo, Toma-
sito, Lichis eta Albert Pla han-
dia dira "La Pandilla Voladora...
Amorrawtu gaitzakete"



MUSIKAREN TXOKOA: "Born#1" musika taldeari egindako bideo elkarrizketa. Taldearen sorrera, orainaldia eta etorkizuneko erronkak azaldu dituzte Ikus gure web orrian



Tino Sorianok National Geographic-erako ateratako irudia Argazkia: Tino Soriano

Tino Soriano National Geographic-eko argazkilaria, Aiaran

ERREDAKZIOA | Lucia Martin

Asteburu honetan nazioarteko ospea eta eskarmentu handiko argazkilaria bartzelonarra izango da Aiaraldean, Tino Soriano. Argazkilaria National Geographic Channel-erako hiru dokumental egin eta Unescoren Humanity Photo Award, Mexikoko Lente de Plata eta World Press Photo saria jaso ditu, besteak

beste. Black Kamera argazki eskola antolatu du tailerra eta urriaren 19 eta 20an izango da Arespalditzako Adram Dram Kulturgunean.

Tinorekin tailerra egiteko ideia duela sei hilabete inguru sortu zen, Gasteizen bidaia - argazkigintzaren inguruan egindako saio batek izandako erantzuna ikusi eta gero. Ber-

taratu zirenak gehiago entzuteko gogoz geratu ziren eta Josu Zaldibarrek ikastaroa Aiaran egitea proposatu zion Tinori.

Tailerrak "Argazki erreportajea: Estiloa eta begirada" du izena eta Tinok azaldu duenez denentzako ikastaroa da, ez dira ezagupen handiak behar, ez baita oso tailer teknikoa.

Argazkilaria nabarmendu duenez, ez da trukoak ikasteko ikastaroa izango, argazkiak hobeto ateratu eta ondo pasatzeko saioa baizik. Bere iritziz, edozerekin, telefono mugikorrekin ere, argazki onak ateratu daitezke gauzak argi izanez gero.

Tailerrean argazkilaria begiradaren ingurukoak jorratuko dira batez ere. Egungo argazki-kazetaritza, argazkilaritza bizitzaren erronka, irudi aukeraketa nola egin eta argazki edizioa ere mintzagai izango dira.

Hitzaldi irekia

Ikastarora Aiaraldeko eta Euskal Herriko jendea bakarrik ez, Tinori entzuteko aukera galdu nahi izan ez duten pertsonak ere etorriko dira Bartzelona, Kantabria edo Aragoitik.

Tokirik ez dago tailerrean, 20 lekuak deialdiarekin eta berehalabete baiziren. Hala ere, ostiralean, urriak 18, argazkilaria publiko guztiari zabalduko hitzaldi irekia emango du. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera izango da Arespalditzako Adram Dram Kulturgunean.

+ info: Aiaraldea Irratian Josu Zaldibarri egindako elkarrizketa

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko sarre- rak, Aiaraldean salgai

Urrian hasi zen Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusia. Abenduak 15ean izango da finala, Barakaldoko BECen. Finaleko sarre-
rarak dagoeneko salgai jarri ditu Bertsozale Elkartek Amurrioko Txokogorri eta Audioko Arraño-
pe tabernetan. Sarrera arruntak 30 euroko prezioa du. Bazkideek, aldiz, 21 eurotan eskuratu ahal-
ko dituzte.

Txemi Llanok argazki erakusketa Gasteizko Artium plazan ikusgai

Txemi Llano argazkilaria aiara-
rraren lanak Gasteizko Artium
museoaren plazan ikusteko auke-
ra dago urriaren 12 geroztik.

Erakusketak "Ciclistas urba-
nos" izena du. Erakusketan ager-
tzen diren txirrindulariak Jose Mi-
guel bere bidean aurkitutako
pertsonak dira, desplazamendu
jasangarriaren bidean ibiltzen di-
renak, hain zuzen.

AUDIO ALBISTEA:
Aimara antzerki taldearen
Amateur erakustaldia.
Elisabeth Andari egindako
elkarrizketa Aiaraldea
Irratian.



MATEO
Pagazaurtundua
IRAKASLEA

_Lurpetik

Amerikara joan nintzen...

Tomas Zubiaur albaitari audioarra Mexikoko Pancho Villaren ejer-
zito iraultzailean ibili zen gora eta behera, horren berri jakitun gaude.
Aldiz, bere emigrazioarako arrazoak ez dira hain ezagunak gure ar-
tean. Ahoz aho entzundakoa zuenganatzeko asmoz, hara hor istorio-
txoa.

Gaur egungo Nerbioi kalean Urkixo (Urquijo) markesaren estatua
zegoen kokatua garai haietan. Gau baten estatua horren burua moz-
tu eta Nerbioi ibaira bota omen zuen gure ekintzaileak. Markesak ho-
rren berri izan bezain pronto neurriko erantzuna emateko prest ager-
tu ziren. Tomasi, beldurraren beldurrez, Laudiotik emigratzea otu zi-
tzaion bere larrua uhalak bihurtu baino lehen.

Denbora laburrean, Kubarako prestatu eta itsasontziratzen. Ir-
lan bertan nahi zuena topatu ez, eta, ondoren kontinenteko Mexikora
egin zuen jauzi. Han Pancho Villaren bila joan eta aurkitzerakoan ha-
ren partidako zaldien osasunaz ardura hartu zuen albaitari lana ede-
rra eginez.

Bueltako bidaia ere egin omen zuen. Berean egonik gauza bera
egingo zenuke zuk, irakurle xaloo?

ZELAIKOETXE
NEKAZAL-ETXEA



Gorbea auzoa 2
01477 OZEKA (ARABA)

945 061 041 / 667 402 245
j.artetxe@hotmail.com



kirola

ESKUBALOIA

“Gure helburu nagusia liga eta kopa irabaztea izan behar da”

ELI PINEDO (Amurrio, 1981) Bera-Bera taldeko jokalaria da. Espainiako Selekzioarekin Joko olinpikoetan brontzezko domina lortu zuen. Emakume eta kirolari izatea abantaila baino pribilegiotzat du, “falta dena jende guztia honetaz konturatzea da”.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

ELI PINEDO Bera-Bera eskubaloia taldeko jokalaria da. Gizonekin alderatuz emakumeak bigarren lehenaren dauden arren, pixkanaka berdintasuna lortzea espero du.

Nola hasi du liga Bera-Berak?

Egia esan, uste genuen baino askoz hobeto hasi gara. Ligako partida guztiak irabazi ditugu, eta horrela jarraitu nahi dogu. Hala ere partiduz partidu joan behar gara, liga luzea da eta.

Talde gisa, zein helburu jarri diozue denboraldiari?

Gure helburu nagusia Liga eta Kopa irabaztea izan behar da.

Aurten ere Txapelduen Ligan parte hartuko dugu, baina oso zaila izango da honetan mantentzea, hala ere disfrutatut egingo dugu seguru eta asko ikasiko dugu txapelketa honetaz.

Eta pertsonalki?

Bera Bera taldearekin helburu hauek lortzea noski.

Eta, gero, selekzioarekin abenduan ospatuko den Mundialean sailkapen on bat lortzea espero dut.

Espainiako eskubaloia selekzio-kide ere bazara. Hautatua izatean zer sentitzen da?

Ilusio handia egiten dit hautatua izaten naizen bakoitzean.

Selekzioan jokatzeko dudak bakoitzean asko disfrutatzen dut eta.

“Nire ametsa errealitate bihurtu zen Joko Olinpikoetara joateko sailkatu ginenean”

Joko olinpikoetan brontzezko domina lortu zenuten. Nola bizi du batek hori? Nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia izugarria izan zen, inoiz ahaztuko ez dudana.

Nire ametsa errealitate bihurtu zen Joko Olinpikoetara joateko sailkatu ginenean, baina han bertan egon da dominarekin bueltatzea sinestezina

izan zen guztiontzako. Inoiz bizi dudan esperientziarik politena izan zen inolako zalantzarik gabe.

Patri Pinedo ahizpa, taldekide eta aurkari izan duzu. Zer izan da zuretzat?

Patri dena izan da -eta da- niretzat. Ahizpa, kidea, laguna... ezin dot imajinatu nire bizitza Patri barik.

Gehien ezagutzen nauen pertsona da, maila handiko jokalaria izan da eta orain euskara irakasle aparta da. Nere bizitzako pertsonarik garrantzitsuenak da.

Emakume izatea kirolari profesionalen munduan zer da abantaila ala oztopoa?

Gauzak hobetzen doaz gizartearen emakume kirolarekin.

Egia da oraindik bigarren leerro batean gaudela gizonekin konparatuz, baina pixkanaka pixkanaka berdintasuna lortzea espero dut.

Abantaila baino, emakume izatea pribilegio bat dela pentsatzen dut, falta dena jende guztia honetaz konturatzea da.

Urte batzuk barru, nola gustatuko litzaizuke ikustea profesionalki zure burua?

Egia esan ez da kit zertan egingo doten lan eskubaloiarekin bukatzean.

Pedagogian lizentziatua naiz eta hezkuntzaren mundua beti gustatu zait. Telebistan lan egitea ere gustatuko litzaizuke, beti ere kirolaren arloan baldin bada, noski.

TRAIL LASTERKETA:

Sevillano eta Olabarria garaile igandeko proban

ERREDAKZIOA I Markel Iturrizar

Eskualde eta inguruko korrikariak batu zituen igande goizez Arrankudiaga-Zolloko II. Trail lasterketak. Eguraldi ederrak eta kirola egiteko gogoak, giro bikaina zabaldu zuen herrian. Nagusien lasterketa, goizeko 11:30ean hasi zen eta emakume eta gizonek hartu zuten parte.

Hala ere, horiez zengozen egin zen lasterketabakarra, umeentzako Kross txikia izan zen ere eta. 0-5 urteko umeek 500 metro inguruko lasterketa korritu zuten, 6-10 urte bitarteko umeek 700 metro inguruko lasterketa eta 11-15 urteko umeek 1200 metro inguruko bidea egin zuten.

Parte hartzeari dagokionez nagusien lasterketak marka hautsi zuen. Izan ere, 230 korrikari baino gehiagok hartu zuten parte 11 Kilometro luze eta 1005 metro maldatuta metatua dituen ibilbidean.

Ibilbideak Arrankudiaga eta Zolloko zenbait auzo eta baso zeharkatzen zituen, abiapuntua eta helmuga Arrankudiagako plazazuela. Zirkuituak asfalto zein mendi pistak aldiak zuten.

Lasterketa hastearekin batera, Javi Olabarria oroizkoarra jarri zen buruan erritmoa markatuz. Zollon 7. kilometro inguruan jarritako goien hornidura puntuan minutu bateko tartea ateratzen ziren atletik zetoarren taldetxoari. Helmugan, minutu eta erdiko tartea ateratzen zion 2. sailkatuari, Amurrio Trail taldeko Jon Lozanori. Irabazleak 43 minutu eta 44 segunduko marka egin zuen, orain arteko errekorra hautsiz.

Nesken kategorian, aldiz, Sandra Sevillano izan zen garaile, 53 minutu eta 38 segundotan bete zuen ibilbidea. Atletik, minutu bateko tartean Naia Gartzia, Montse Vázquez eta Raffaella Ciavola sartu ziren.

Arrankudiagatarren artean azkarrena Aritz Leturiaga izan zen.

KANPORA EMATEN DUTEN 6 ETXEBIZITZA
K/ KARMEN 7 (TOLO TABERNAREN ONDOAN)

3 LOGELA GARAJEA ETA TRASTELEKUA
240.000 €

PROMOZIO BERRIA

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
94 672 85 50

etxaurre
inmobiliaria

KONTRATATU PUBLIZITATEA
AIARALDEA EGUNKARIAN
EDO WEB-GUNEAN

kontsultatu
tarifak eta
eskatu aurrekontua
publizitatea@aiaraldea.com

aiaraldea.com



_kirola

TXIRRINDULARITZA: Urriak 27an egingo dute XVI. alforjadun bizikleta martxa Amurriion

Alforjadun bizikleta martxa egingo dute datorren igandean Amurriion. Ibilbideak 40 kilometroko luzera izango du. Amurriion hasi eta amaituko da. Tar-tean, ordea, Luiaondo, Laudio, Areta, Orozko, Ibarra, Berganza eta Lezama zeharkatuko ditu. Izen emateak 40 euro balio du.

BTT: Fernando Egiluz urduñarrak munduko suhiltzaileen proban lehen postua lortu du

Fernando Egiluz urduñarrak Munduko suhiltzaileen txapelketako BTT txirrindularitza modalitatean txapeldun izatea lortu du. Lehen postua BTT eta erlojupeko frogetan eskuratu du. Kirol proban munduko 140 pertsonen parte hartu zuten. Egun, Egiluzek, Bilboko suhiltzaile gisa egiten du lan.



ARETO FUTBOLA: Babiloniak 3-4 garaitu du Izarobe futbol taldea Amurrioko bigarren derbian

Pasa den asteburuan Babilonia areto futbol taldeak, 3-4 irabazi zuen Izarobe. Ondorioz, Izarobe laugarren postuan kokatu da. Uxo talde laudioarra zortzigarren dago, eta Babilonia hamargarren postuan.

Partidaren bideolaburpena sa-rean eskegi du Izarobek.



Gaizka
Barañano "Txapel"
KORRIKALARIA

_Helmugari so

Kirol gutxituak

*J*ende gutxi nahi du kirol gutxituak desagertzea. Baina, nork egiten du zeozer hau ez gertatzeko?

Lau urtero, Joko Olinpikoe-kin batera oroitzen gara futbola izan ezik, saskibaloia, txirrindularitza, esku pilota, arrauna, Formula 1, tenisa, eta beste kirol asko ere badaudela.

Kirol hauek administrazioen aldetik diru laguntza iragarriak jasotzen dituzte eta hauek dira laguntza hauek benetan behar dituztenak.

Badira gure artean kirolari oso onak, ez bakarrik Euskal Herrian, baita Aiara eskualdean ere. Eta, hurbil egon arren, guztiz ezezagunak dira.

Javier Ruiz de Larrinaga (Ziklokrossa), Eli eta Patri Pinedo (eskubaloia), Julian Sanz (ultraciclismo), Fernando Egiluz (BTT), Ibai Ruiz (Kick-boxing), Olga Artiñano (Sokataira)... Bakoitza bere kirolare-tako kirolari onenen mailan dago.

Gutxien kirol horietako askok beste kirolek baino sakrifizio, diziplina eta ardua askoz gehiago eskatzen dute.

Kirolari hauek, gainera, entrenatu baino lehen, edo entrenatu eta gero, lan egitera joan behar dute.

Eguneroko lan guztia, ez dute diruagatik edo ospeagatik egiten. Kirolarekiko zaletasunagatik egiten dute.



Laudio futbol taldea 28 mailako igoera ospatzen Argazkia: Aiaraldea.com

FUTBOLA: C.D Laudioaren ametsak bizirik darrai Errege Kopan

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

CD Laudio taldeak Olinpik Xatvari irabazio dio eta Errege Koparen hamaseigarrenetan egongo da. Aiaraldeko taldeak XXX menderatu zuen Valentziakoa Ellakurin. Golegilea XXXX izan zen.

Garaipenak egoera historikoa jarri du CD Laudio. Lehen aldia da klubak Errege Kopa jokatzeko duena eta hala ere urrun heldu da. Hurrengo kanporaketan 1. mailako taldearen aurka neurtuko da.

Hain zuzen ere zozketak Europako lehiaketak jokatzeko dituzten klu-

ben aurka jarriko du. Beraz, talde arabarrak Real Madrid, F.C. Barcelona, Atlético de Madrid, Real Sociedad, Valencia, Betis edo Sevilla izango ditu aurrez aurre. Hortaz, 2.B mailako taldearen aurkaria puntakoa izango da.

Gainera, kanporaketa ez da partida bakarrean jokatu. Joan eta etorriko partidak egingo dira. Beraz, 1. mailako taldeak Ellakuri bisitatu-ko du eta CD Laudio Europa mailako estadioan arituko da.

Jarraitzaileek zein jokalariek

amets bikoitza gozatzeko aukera izango dute. Herrian ikusiko dituzte kirolari ospetsu eta lehiakorrak eta aldi berean beste hiri batera bidaiatzeko parada izango dute.

Ekonomikoki ere garaile

Ekonomikoki ere beste bultzada garrantzitsua jasoko du klubak garaipenaren ostean. Alde batetik, 20000 euro irabazi ditu kanporaketan gailendu eta gero.

Hurrengo kanporaketan garraio laguntzak ere izango ditu eta mi-

riaria gertatuko balitz eta irabazi-ko balu, 30000 euroko saria eskuratu luke.

Aurrekariak positiboak dira zentzu horretan ere. Eciña menpe hartzeagatik 16000 euroko diru sarre-ra izan baitzuen klubak.

Ekonomikoki lehiak diru sarrera gehiago bermatzeko beste aukera irekiko du. Nahiz eta partida telebis-tek irekian ez duten eskainiko, pay per view-aren bitartez ikusteko pa-rada izango da. Modu honetan ikusi nahi duenak ordaindu behar du eta horrek diru gehiago irabazteak ekarri dezake. Horretarako transmisio eskubideak negoziatu behar-ko ditu klubak.

Denboraldi txukuna

2013/2014 denboraldia 2. B mailan jokatzeko duen lehenengo da CD Laudioarentzat. Hasiera oso ona izan zuen, Sariñena menderatu zuen eta gero Athletic Clubaren aurka berdinketa lortu zuen Lezaman. Egun batzuk geroago Real Union taldearen aurka jokatu zuen Errege Kopa eta luzapenean sailkatu zen. Hori bai, Real Unionen aurka topo egin zuen Ligaren hurrengo jardunaldian eta gipuzkoarrek mendekua hartu zuten, hiru puntuak etxera eramanez. Ligako ezbeharrak igaro eta gero Eciñan sailkatu zen berri-ro Errege Kopan. Gero Amorebieta, Fuenlabrada eta Puerta Bonita taldeek irabazi zioten. Krisialdia Leganés eta Peña Sport-en aurkako garaipenek leundu dute eta Errege Kopako emaitzek atzean utzi dute.

Hurrengo partida urriaren 19an jokatu dute Barakaldoko taldearen aurka.

AIARALDEA IRRATIAN
IRRATSAIO BAT EGIN NAHI DUZU EUSKARAZ?

Jar zaitez harremanetan gurekin
irrati@aiaraldea.com

Razioak, gosariak, afariak, giro eta musika ona...

BORDAGXO
taberna

Bañuetaibar 6
01470 AMURRIO (Araba)

Ordutegia: 07:00-23:00
(ASTEBURUAK 08:00-24:00)

_Herriko plaza

_agurrak



Unai

Lado

Zorionak Unai! 6 urte bete ditugure txikiak.

Ondo pasa zure egunean! Zure lehengusinak.



Ziortza

Orueta

Urriaren 13an 26 urte bete zituengure etxeko neska polit, atsegin, maitakor ta jatorra. Zorionak zarena zarelako! Etxekoak.



Eneko

Eguren

ZORIONAK ENE PREXIOXIN!

Urriaren 27a zure eguna! Maite zaitugu!

35 muxu erraldi zuretzako nire bihotz eta barrenetik!
Manex eta Irantzu!



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera



MUSIKA EKINTZEN GUNEA

Laudioko Industrialdea - Ikaskin 5
www.drumgorri.com
drumgorri@gmail.com
facebook.com/drumgorri.aretua
Tlfnoa: 666 18 50 93

2013 / 2014 IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA ZABALIK

HAURRENTZAKO MUSIKOTERAPIA
JAZZ-GITARRA (CARLOS VELASCO)
PIANO GARAIDEA
GITARRA ELEKTRIKOA AKUSTIKOA / TRADIZIONALA
KANTU GARAIDEA
BAXU ELEKTRIKOA
BATERIA
BATUKADA
PERKUSIOA
INFORMATIKA MUSIKALA

_botikak

URRIAK 17

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Amurrio: PEREDA (Landako)

URRIAK 18

Laudio: MENOYO (Ugarte)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)
[*19:45-21:00 Amurrio: PEREDA]

URRIAK 19

Laudio: AIS (Gasteiz kalea 2)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)

URRIAK 20

Laudio: AIS (Gasteiz kalea 2)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)
[*11:00-13:00 Amurrio: PEREDA]

URRIAK 21

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

URRIAK 22

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
ARTZINIEGA: FERNANDEZ (Encina 6)
[*19:45-21:00 Amurrio: YARZA]

URRIAK 23

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)
[*19:45-21:00 Amurrio: QUIJANO]

URRIAK 24

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

URRIAK 25

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

URRIAK 26

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

URRIAK 27:

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo 11)

URRIAK 28

Laudio: AIS (Gasteiz kalea 2)
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

URRIAK 29

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)
[*19:45-21:00 Amurrio: HERNANDEZ]

URRIAK 30

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Amurrio: YARZA (Elexondo 33)

_merkatu txikia

ALOKAIRUAN

PISUA GASTEIZEN
San Ignacio de Loyola kalean
60 metro karratu.
2 logela
550 €
653718732
astakirota@gmail.com

SALGAI

GURPILDUN AULKIA
Elektrikoa
egoera onean
1.500 € (negoziagarria)
685723960 (Laudio)

MOTOALTZURRA SALGAI
Honda markakoa, 6,5 cv
Kutxillak % 90ean
Bi abiaduratako martxak aurrera
eta bat atzera
616256632

METRONOMOA
WITTNER Piccolo
Egoera onean,
jatorrizko kutxarekin.
Prezioa 15 euro
facebook.com/comprameloenurduna

BIDEOKAMERA
HANDYCAM DVD203E
Egoera onean, zaindua
(5 orduko erabilpena)
Osagarriak barne
Prezioa negoziagarria: 200 euro
facebook.com/comprameloenurduna

PLATAFORMA BIBRAKORRA
VIBROMAX YV20.
150 W-TAKO 2 motore
Egoera onean, salgai leku faltagatik
Jatorrizko prezioa 1200 euro
Prezioa: 500 euro
Etxera eramateko prest nago.
facebook.com/comprameloenurduna

Karrantza (Bizkaia)
5 hilabeteko bildotsa
Latza eta beltza. Arra.
Prezioa ez dago finkatuta.
665754313

DOAN

TXAKUR JAIO BERRIAK
Euskal Artzain Txakurra
eta Collie arraza-gurutzaketa
duen txakur eme baten kumeak
Irudiak jasotzeko aukera dago.
ieragar@hotmail.com
618243937

UMEAK ERAMATEKO MOTXILA
Durango (Bizkaia)
Prezioa: 50 €
Red castle sport umeak eramateko
motxila salgai.
iragarkilaburrak@bertako.net

LAN ESKAINTZAK

UMEA ZAINTEZKO PERTSONA
lurretan pertsona bat behar da,
goizetan umea hartzaindegira

eramateko, eta gaixo dagoenean zaintzeko.
659-15 08 50

TXISTU IRAKASLEA.
Aramaio (Araba)
Datorren ikasturterako
605-74 80 87 / 945-44 54 84

LAN BILA

ESKOLA PARTIKULARRAK
Durangaldea
Ekonomian lizentziatuta
Masterduna. EGA eta First.
635-74 67 98

BILA

FRANTSESA
Frantsesa praktikatu nahiko nuke.
Astean behin edo bitan
Arratsaldean eta Laudion.
65 67 65 811

ZERBAITEN BILA
BAZAUDE EDO
ZERBAIT ESKAINTZEN
BADUZU, HONA
HEMEN ZURE TXOKOA:

iragarkilaburrak@aiaraldea.com
Tel: 94 656 85 54
WhatsApp: 688 848 152



_herriko plaza

_agenda

10.17 OSTEGUNA

16:00 AMURRIO
HITZALDIA
Nagusien zaintza
Kultur etxean

18:00 ARTZINIEGA
HITZALDIA
Udalaren erantzuna
indarkeria matxistari
Museo etnografikoan

10.18 OSTIRALA

12:00 AMURRIO
MOBILIZAZIOA
Kider enpresak deituta
Juan Urrutia plazan

18:30 LUIAONDO
AURKEZPENA
Berebalagunak
Gizarte etxean

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Melmak, Beruna eta
Akhban
Drumgorri Aretoan

19:30 ARESPALDITZA
HITZALDIA
Tino Soriano argazkilaria
Udaletxeko aretoan

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Kantautoreen maratonia
Gaztetxean

19:30 OROZKO
HITZALDIA
Irakeko kurduak: bizitza
bazterbidean
Orozkoko museoan

10.19 LARUNBATA

09:00 LAUDIO
MOBILIZAZIOA
Santa Luziara martxa
Herriko plazatik

10:00 OROZKO
ONDAREA JARDUNALDIAK
Goikiriako gangak ikusteko
txangoa. Orozkokomuseo-
tik abiatuko da ibilaldia.



17:00 OROZKO
EUSKARAZ BIZI NAHI DUT
LASTERKETA
Umeen eta helduen
lasterketa.



20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
"Escrito en la piedra: Cami-
lle Claudel"
Amurrio Antzokian

12:00 OROZKO
AURKEZPENA
Nau-ren aurkezpena
Gaztetxean

11:00 AMURRIO
MIKOLOGIA ASTEA
Tabernetan pintxolehiaketa
Herrian zehar

09:30 ARAKALDO
AUZOLANA
Ibaia ren garbiketa
Usilarran

10.20 IGANDEA

08:00 LAUDIO
IBILALDIA
Oxigenoa euskarari: Urkio-
lara mendi irteera
Bus geltokitik

09:15 AIARALDEA
NAFARROA OINEZ
09:15 Urduñatik
09:30 Amurriotik
09:45 Laudiotik
Autobusa. Itzuleran 18:00etan

11:00 AMURRIO
MIKOLOGIA ASTEA
Tabernetan pintxolehiaketa
Herrian zehar

13:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Musica Antiqua
Lamuza Elizan

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Laudioko Musika
Done Pedro Elizan

10.22 ASTEARTEA

11:00 LAUDIO
HITZALDIA
Atzerritar araudia
Erabilera Anitzeko
Udal Aretoan

20:00 URDUÑA
BERBALAGUN
Dantza taldearen
aurkezpena
Lanbide Heziketan

10.23 ASTEAZKENA

11:00 LAUDIO
VII. AZOKA SOLIDARIOA
Arabako GKEek antolatuta
Herriko Plazan

16:30 LAUDIO
IKASTAROA
Emozioen adierazpena
Kultura Etxean

18:00 LAUDIO
IKASTAROA
Sexualitatea eta tupper sex
Kultura Etxean

19:00 ARESPALDITZA
HITZALDIA
Emakumeen ordezkaritza
Arabako Kontzejuetan
Udaletxean

10.25 OSTIRALA

18:30 URDUÑA
HITZALDIA
Vallecaseko gazteria
Gaztetxean

20:00 URDUÑA
KONTZERTUA
Bood boys, Nucleo Terco,
Habemus papam, A gan-
txo y kutxillo
Gaztetxean

10.26 LARUNBATA

08:30 LAUDIO
MENDI IBILALDIA
Otxandio-Motxotegi
Bus geltokitik

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
"Esta noche no estoy para
nadie"
Amurrio Antzokian

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
The pushermen, Nuevo con
diez eta Born#1
Gaztetxean

14:30 AMURRIO
ALDAMAKO JAIK
Herri bazkaria
Aldama auzoan

10.27 IGANDEA

09:30 OROZKO
GAZTAIN EGUNA
Ibilaldia eta herri bazkaria
Zubiaur plazatik

12:30 AMURRIO
ALDAMAKO JAIK
Trikipoteoa
Aldama auzoan

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Chickens Call eta Diswar
Orbeiko etxean

_ikusmiran

ZINEMA

10.18. OSTIRALA

"FORMAT"
LAUDIOKO LHUI
20:00etan

"LA FUENTE DE LAS MUJERES"
OKONDO ESKOLA
19:30ean / Doan

10.20. IGANDEA

"PROMISE LAND"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 2€

"EL LLANERO SOLITARIO"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean / 3.60 €.

"CRUCE DE CAMINOS"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean / 4.80 €.

10.21. ASTELEHENA.

"CRUCE DE CAMINOS"
AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan / 4.80 €.

10.26. LARUNBATA.

"LA GRAN FAMILIA ESPAÑOLA"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan / 3€

10.27. IGANDEA.

"LOS PITUFOS 2"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean / 3.60 €.

"EL ULTIMO CONCIERTO"
AMURRIO ANTZOKIA :
20:00etan / 4.80 €

10.28. ASTELEHENA.

"EL ULTIMO CONCIERTO"
AMURRIO ANTZOKIA :
20:00etan / 4.80 €

10.31. OSTEGUNA
"LA BICICLETA VERDE"
LAUDIOKO LHUI
18:30ean / Doan

BEREZIAK

OROZKO

EUSKAL DANTZA ASTEA
UBIXETA DANTZA TALDEAK ANTOLATUTA

10.25. OSTIRALA. 12:00etan
"Euskal Jantziak" erakusketa
Orozkoko Museoan
Agintzari Dantza Taldeak antolatuta
SARRERA: doan

10.31. OSTEGUNA. 19:00etan.
"Zapia nola jarri" hitzaldia
Donibane Aretoan
Ubixeta Dantza Taldearen eskutik.
SARRERA: doan

10.02. LARUNBATA.
18:30ean. Dantzen alardea eta pintxoak
Ubixeta Dantza Taldeak antolatuta.
SARRERA: doan

20:00etan. Erromeria eta dantza
jantzi baten zozketa
Ubixeta Dantza Taldearen eskutik.
SARRERA: doan

AIARA

EUSKARAREN EGUNAK
24 ELKARTEAK ETA AIARA KO UDALAK
ANTOLATUTA

10.18. OSTIRALA. 19:30ean
Marrazki bizidunen kontzertu didaktikoa
Luiia ondoko gizarte etxean
SARRERA: doan

10.20. IGANDEA. 12:30ean
Bertsotrikipoteoa Arespalditzatik
SARRERA: doan

10.20. IGANDEA. 14:30ean
Herri bazkaria Llantenenoko eskolan
SARRERA: doan

ARAKALDO

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT EGUNA
ARAKALDO KO UDALAK ANTOLATUTA

ANTOLAT 10.20. IGANDEA. 11:00etan
Pilota tailerra frontoian
SARRERA: doan

10.20. IGANDEA. 16:30ean
Pilota txapelketa
SARRERA: doan

_ezin galdu



MIKOLOGIA ASTEA: Datozen hiru asteburuetan Mikologia asteak antolatu dituzte Laudion eta Amurrrion. Bi herrietan tabernen pintxo lehiaketa egongo da. Amurrrion, larunbatetik aurrera ekingo diote perretxikozaleen asteburuei. Azaroak 3 bitarte, ekitaldi ezberdinen bidez ziza mota ezberdinak ezagutzeko aukera izango da.

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK
AIARALDEAN

OSTEGUNA
LAUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTIRALA
AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA
URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan
OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

* Hamabostaldi honetan ez dago
Azoka berezirik


PREZIO ORIENTAGARRIAK
MERKATUETAN

BARAZKIAK
Tomatea 3 €/kg
Letxuga 0.80-1 €/kg
Azalgak 2 €/kg
Lekak 2 €/kg
Frijitzeko piperra 1-1.5 €/kg
Pipermorroa 6 €/kg
Kalabaza 2 €/kg
Kuiatxoak 0.60 €/kg
Indabak 8-10 €/kg
Porrua 1.50 €/sorta

BESTEAK
Arrautzak 3 €/dozena
Gari ogia 2.30 €/kg
Idiazabal gazta 16 €/kg

_kontra

aiaraldea



Irati
Maraño
ITZULTZAILEA
_Leihotik

Yogurinha Borova

“Trabestiak beti egon dira, baina euskaraz egiten dutenak gutxi. Ni mundu hori zabaltzen ari naiz”

YOGURINHA BOROVA abeslaria (1969, Audio) Munduko Alabak kantuarekin BAI- SI-YES diska prestatzen dabil. Urriaren 29an aterako du.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren
Esnekiak gogoko ditut da zure kantu ezagunenetako bat. Esnekiak bakarrik maite dituzu?

Ez, gauza askoz gehiago. Musika, artea, moda, bidaiatzea, argazkigintza, pertsonak, Audio, ama, familia...

Zeri dio Yogurinhak alergia?

Gezurrei, jende txarrari, homofobiari, intolerantziari, gorrotoari...

Gezurren munduan bizi gara, askoz hobeto geundeko egiarekin aurrera joango bagina.

Bizitzeko beharrezkoa da gezurrak esatea?

Nola-kotasunaren arabera. Gehiengoz nik uste dut ez dela beharrezkoa.



Trabesti bat abesten. Zergatik da jendearentzat ezohiko?

Trabestiak beti egon dira, baina

euskaraz egiten dutenak nahiko gutxi. Ni mundu hori zabaltzen ari naiz, baina ziur nago lehenago trabesti euskaldunak egon direla. Jendea ohitu egin behar da.

Euskara trabestismora eraman duen lehena zara..

Nire gurasoei hitz egiten uzten ez zietelako kantatzen dut euskaraz. Beti gustatu izan zait izugarri, ikasi egin nahi nuen, erabili. Euskaldunberria naiz, AEKn ikasi eta EGA atera nuen duela 20 urte, errazagoa zenean. Baserri batean bizitzen ere egon nintzen; familia ikaragarri batekin Altzon. Bai eskolan eta bai kalean horri esker ikasi nuen.

Mozorroa beharrezkoa du jendeak?

Batzutan bai, bestetan ez. Ondo dago mozzoratzea nahi duzunean, jolasteko eta beste era batera jokatzeke bada. Hori bai, beti errespetauekin eta ondo. Gauza txarrak egiteko mozzoratzea nik uste dut nahiko txarto dagoela.

Pertsonatik ala pertsonaitik, nondik du Yogurinhak gehiago?

Hasiera batean pertsonatik, orain pertsonaitik. Las Felini taldekoekin hasi nintzen. Trabesti izatea ez da inoiz nire gogoia izan, baina haiek ikustera joan eta haiekin jolasteko /probatzeko esan zidaten. Bakoitzak bere pertsonaiko gauzak barrutik ateratzen zituen. Hasiera nire barrutik sortu zen, baina orain aktoreak gara gehiago.

Ispiluaren aurrean nahi duzuna zara?

Bai, gero eta gehiago. Niri eta edozein pertsonari gertatzen zaio hori, zu izaten saiatu behar zara. Orain geroz eta errazagoa da zu izatea. Lehen aurreiritziak, beldurrak, lotsak... zeuden.

Erotik ala erotikotik nondik duzu gehiago?

Bietatik. Nire pertsonaia nahiko eroa da, erotikotikoa izaten ere saiatzen da. Pertsona bezala, ona eta alaia izan nahi dut, zoriontsua.

Zurekin ez nagoenean malariatz gaixotzen naiz

Ez dizut esango goiz usaineko ahotza duzula, ez desertuko erreka narroa zarenik.

Ez dizut esango gazela begiak dituzula, ez zure ilea arratseko haizea baino leunagoa denik.

Ez dizut esango zure gorputzak, loak hartua, duna magalen sosegua duenik. Zure gorputza normala da, baina zurekin ez nagoenean malariatz gaixotzen naiz.

Horra hor nola definitu zuen amodioa duela mila bat urte bizi izan zen poeta tuareg batek. Sentimenduen misterioa bere gordinean, logikak azaldu ezin duena hitzen bidez adierazia. Literaturak ezertarako balio ez duela dioten horiek, beraz, oker daude. Egunerokotasunaren sorgin-gurpiletik atera eta sosegu apur bat ematen digu literaturak, aterpea. Harekin ikasi egiten dugu, bidaiatu, hausnartu, gozatu... Gutxi dira, beraz, hainbeste aukera eskaintzen dizkiguten tresnak. Bide batez, Sarriandariaren Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak liburuan dago harribitxi hori.



EKITALDI GUZTIAK LANDATXO KIROL GUNEAN HASIKO DIRA

- 11:00 HARRERA BEROA (Hamaiketako eta guzti)
- 11:30 MINTZA PROBAK (Berba-pasa, Atsotitzak bertsotan eta palindromoak)
- 13:00 ARABA MINTZA-KANTUZ kalejira
- 14:30 BAZKARIA (Babarrun jana, mundiala)
- 16:30 "ARABA SALTZEN" LEHIAKETA
- 17:00 DANTZALDIA "FAN & GO" TALDEAREKIN
- 19:30 KALEJIRA "AKELARRE" TXARANGAREKIN

Eman izena zuen herriko mintzalagun/berbalagun taldeetan!
www.mintzalaguna.org

ARABAKO MINTZA EGUNA
Gasteizen, urriaren 19an

